

FAMILIA ARTEAN

FAMILIAREN UNIBERTSOA

SAIOA 7 URRATSETAN

1. AURKEZPENA
2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK
3. BIZIPENA
4. JAINKOARI ENTZUN
5. ALKARRIZKETAN JARDUN
6. OTOITZEAN ADIERAZO
7. ETXERA EROAN...



1. AURKEZPENA

Gure familia gizarte bizitzaren zelula da. Hainbat arau, balio, alkarren artean komunikatzeko bide eta jokamolde barne hartzen dauan hartu-emonen multzoa. Familian, besteen aurrean egonkortasunez kokatzen gaituen eginkizunak doguz. Familiako kideok doguzan hartu-emonak baldintzatuko dabez gero gizartearekin eta Jainkoarekin izango doguzan hartu-emonak.

Fitxa hau lagungarri izango dogu hainbat gauzez konturatzeko, esate baterako, gure hartu-emonak eta gutako baxotxaren jokaerak zerikusia dabeala gure familia bizitza sanoa, aberasgarria eta zorionekoa izan daiten.

Familia “pertsonek arteko hartu-emonen multzoa da; azken batean, giza familiarako eta Jainkoaren familiarako sarbide dira gizon eta emakumeentzat” (FC 15).

HASIERAKO DINAMIKA:

Saioari hasiera emoteko, joko dinamikoa egingo dogu, izotzaldia urteko eta, bide batez, alkar ezagutzeko.

Antolaketa:

Bikoteka, besoak luzatuta eta eskuak alkarri emonda, 90ºko angelua egingo dogu gorputzarekin perpendikularrean (etxe-arena egingo du). Bikote bakotzak errentari bat izan behar dau, hau da, kidea barruan, besoen artean.

Azalpenak:

Lagun batek ez dau etxerik. Honek "ERRENTARI" esango dau eta errentari guztiek etxez aldatu beharko dabe, kanpoan geratzen danak egingo dau seinalea. Ezin da aurreko etxera bueltatu.

Aldaerak:

-“EZKERREKO HORMA edo ESKUMAKO HORMA” gehitu daiteke. Etxeko hormak aldatu egin beharko dabe eta beste etxe batera joan (ezker eta eskuma errentariari dagokionez).

-“ETXEA” gehitu daiteke eta etxe osoa aldatu (horma 2ak), baina errentaria lekuan bertan geratuko da beste etxe batek estali arte.

-“LURRIKARA” gehitu daiteke eta danak aldatuko dira (hormak + errentaria).



2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK

FAMILIEN UNIBERTSOA

Familia, unibertsoarekin alderatuz, oso txikia da, baina bada bien arteko antzekotasunik.

Planeta, izar eta asteroideen arteko erakargarritasuna da bat. Gure familiek, unibertsoak lez, hartu-emonen oreka da eta alkarrekiko mendekotasuna dabe. Kide guztiek eta bakotzak bere aldetik jarri beharko dau familiak sasoi ona izan daian eta bertan ongizatea nagusitu daiten. Kideren bat txarto dagoanean, gainerako guztiengan eragiten dau. Norbaitek familiako bizitzan edo egitekoetan parte hartzen ez badau, gainerako guztiengan eragiten dau.

Bada beste antzekotasun bat be, unibertsoetik **ezagutzen ez dogunarekin** –ezagutzen doguna baino handiagoa- zerikusia dauana. Gure familiako kideak, bikotekidea, seme-alabak, gurasoak eta eurek gutaz pentsatzen dabena ondo ezagutzen dogula pentsatu daikegu. Halanda be, ez da holan. Are gehiago, ezusteko bat baino gehiago jasoko geunke bizikide doguzan pertsona horreek zelan ikusten gaituen jakin ezkeru. Familia bizitzaren aberastasuna mugagabea da.

Azkenik, astrofisikak, unibertso bakarra ez ezik, asko, **multi-bertsoa**, dagozan aztertzen dihardu. Horrek gure buruko eskemak gaintitu egiten ditu. Izan be, familia bera unibertsoa izateaz gainera, familia estilo eta mota ugari dago.



3. BIZIPENA

Gure familia unibertsoa, aitek, amek, bikotekideak, anai-arrebek, seme-alabek... osatutako multzoa da. Alkar zelan ikusten dogun eta familia lez zertan hobetu gurako geunken aztertuko dogu.

1. ALDIA

Beste ezer baino lehen, familia osatzen dogun kide bakotxak geure burua azertu behar dogu. Horretarako, eredu honeek doguz geure txotxongiloak egiteko. Familia osoa batu eta danen artean danen txotxongiloak egingo dabez, baina egiten ari diran txotxongiloa dagokion kideak ez dau parte hartuko, honek entzun eta begiratu egingo dau hitz egin barik. Banan-banan, kide guztien txotxongiloak egingo dira, zehaztasun guztiekin.



2. ALDIA

Familia osoa batu eta egindako lana batera jarriko dogu.

Deigarria gertatu jat familiako beste kideek zelan irudikatu naben?

Minutu batzuez, horren inguruan hausnartuko dot.

4. JAINKOARI ENTZUN

San Pauloren lehenengo gutuna Korintoarrei (4, 4-29)

Gorputzak, bat izan arren, atal asko ditu; baina atal guztiek, asko izan arren, gorputz bat osatzen dabe. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu zein jentil, esklabo zein libre, Espiritu bat beraz izan gara beteatuak, gorputz bat bakarra egiteko, eta guztioi Espiritu bat bera isuri jaku.

Gorputza, izan be, ez dau atal bakarrak osatzen, askok baino. Oinak «eskua ez nazan ezker, ez naz gorputzarena» esango baleu, ez leuskio horregaitik gorputzarena izateari itziko. Eta belarriak «begia ez nazan ezker, ez naz gorputzarena» esango baleu, ez leuskio horregaitik gorputzarena izateari itziko. Gorputz guztia begi balitz, non entzumena? Eta dana belarri balitz, non usaimena?

Baina Jainkoak bere lekua jarri eutsan atal bakoxtari gorputzean, berak nahi lez. Danak atal bat balitzaz, zelakoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, oster, bat bakarra.

Begiak ez deikeo eskuari esan: «ez dot zure beharrik»; ezta buruak be oinei: «Ez dot zuen beharrik». Oster, makalenak iruditzen jakuzan gorputz-atalak beharrezkoenak dira; eta duintasunik gitxieneko iruditzen jakuzanak itzal eta begirune handienaz inguratzen eta zaintzen doguz. Izan be, berez ohoragarri diranek ez dabe arreta horreen beharrik.

Jainkoak berak, gorputza eratzean, berez ohore-bako ziran atalei ohorerik handiena emon eutsen. Holan, gorputzean zatiketarik ez dago eta atal guztiak bata besteaz arduratzen dira. Honan, atal batek min dauanean, min dabe atal guztiek berarekin; eta atal bat onartua danean, poza dabe beste guztiek honekin.

Zuek Kristoren gorputz zarie, eta zuetako bakoxta gorputz horren atal.

Pauloren gutuna entzun dogu. Bizi izan dogu gure familian –txiki ala handian- Paulok alkarren beharrianaz esandako horren esperientziarik?



5. ALKARRIZKETAN JARDUN...

Ondoren, San Pauloren gutuna gogoan, gure eguneroko bizitzan ohikoak diran egoeren inguruan hausnartuko dogu. Gure txotxongiloez baliatuz, gure ustez sistemako kide bakotzak kasu bakotxean zelan jokatu leuken irudikatuko dogu.

Gaua da eta danok gagoz nekatuta, baina afaldu egin behar dogu. Zer gertatzen da?

Eskolatik etxeko lan asko ekarri dabe eta gatzak dira gainera. Zelan erantzuten dogu? Zer egiten dogu?

Seme-alabak oharra dakar eskolatik, txarto portatu dalako. Ze jokaera dogu?

Domeka da eta familia eukaristia dago. Ze jokaera dau kide bakotzak?

Negua heldu eta gripea sartu da gure etxean. Zer gertatzen da?

Zainketa asko behar dauan maskota erosi dogu orain dala gitxi. Zelan banatzen doguz egitekoak?

GATAZKA: anai-arrebarekin edo bikotekidearekin hasarratu egin naz. Ze jokaera dogu? Ze jarrera hartzen dogu?

Egun batetik bestera, amama gaitxotu eta nork zaindu behar dau. Zelan erantzuten dogu? Zer egiten dogu?

Eleizak familiari eta gizartean dauan egitekoari buruzko ikuspuntu esanguratsu eta eragilea dau. Hona hemen esaldi batzuk:

- Familia, “alkartasun eta partaidetzazko esperientzia” da (FC 43)
- “Horregaitik, familia osatu nahi izatea, Jainkoaren ametsen parte hartzeko gogoia izatea da” (AL 321)
- “Familia bizitza “artzaintza” errukitsua da. Bakotzak, kontu handiz, besteren bizitzan margotu eta idatzi egiten dau...” (AL 322)

Eleizak familiaz dauan ikuspuntua adierazoten deuskuen esaldi honeek, zer dinoskue, zertara deitu?

Hartu denpora apur bat kide bakotxari begiratzeko. Zelan dago kokatuta? Zergaitik ete dago holan kokatuta? Zer esan zeunskio aldatu daiten? Zer ikasi daiket berarengandik?

Minutu batzuez hausnarketa pertsonala egin ondoren, landutakoaren barri emongo deutsegu gainerako kideei eta, ondoren, eztabaidari ekin. Beti be jarrera eraikitzailearekin eta gauzen zergaitiaz jabetzen ahaleginduz, behar izan ezker, aldaketa eragiteko.



6. OTOITZEAN ADIERAZO

Izan gura dodana

*Beretarrak zainduko dituan artzain izan gura dot;
nekatuari itzala emongo deutsan zuhaitz hostotsu;
egartiari edaten emongo deutsan iturri.
Isiltasunak beteko dituan abesti izan gura dot;
urrineko zerumugak agertzera emongo dituan liburu;
bihotz hotza urtuko dauan olerki;
istorioa idazteko orrialde.*

*Irribarre izan gura dot inguru tristeetan,
eta basamortuan erneko dan hazi.
Maitasun-gutun bakartiarentzat,
garrasi ozen gorrarentzat...*

*Artzain, zuhaitz edo iturri, abesti, liburu edo olerki...
Orrialde, irribarre, garrasi, gutun, hazi...
Zeuk gura dozuna, zeuk eskatzen dozuna,
Zeuk amesten dozuna, Jauna...*

Horixe izan gura dot.

José María Rodríguez Olaizola, sj



7. ETXERA EROAN...

Saioaren amaieran, familiako kide guztien artean hausnartutakoa kontuan hartuta, gure ustez familia lez irudikatzen gaituan, geure unibertsoa agertzera emoten dauan irudia bilatuko dogu goglen. Inprimatu eta danek ikusteko moduko lekuan ipiniko dogu, zer esan dogun, zeri eutsi behar deutsagun eta zer hobetu behar dogun sekula ez ahazteko.

